

MATIA

FUNDAZIOA



IZA

Arreta Espezializatuko Zentroa

Pertsona ezindu larriei arreta eskaintzen espezializatutako zentroa

Arreta Espezializatuko Zentroa pertsona ezinduentzako eta euren familientzako baliabide espezializatuak dituen zentroa da. Izaera plurala eta funtzio anitzekoa du eta pertsona horiei eta euren familiei bizi-kalitate onena eskaintzea du helburu, hau da, euren autonomiar, funtzio-gaitasunari, ongizateari, gogobetetasunari, integrazioari eta harreman sozialei eta familiakoei lehengo mailan eustea eta/edo horiek hobetzea.

Zentroa

Komunitateari irekitako balio eta funtzio anitzeko zentroa da eta erabiltzaileen eta euren familiakoen premia aldarretara moldatzen diren baliabideak ditu. Bestalde, aipatutako arretarako eta esku-hartzeko programek bizimodu aktiboa, parte-hartzailea eta arreta pertsonalizatua bultzatzen dute, pertsona egoiliarra motibatuz eta zentroko partaidetzat jotzen ditugun senitartekoak tartean sartuz. Pertsonen eta bere premietan eta nahietan (pertsonalizazioan, intimitatean, aukeratzeko ahalmenean eta abarretan) oinarrituta, espazioa banatzeko eta funtzioak antolatuzko ereduak du zentroak, eta ondorioz, ingurune irigarriak, adiskidetasunezkoak eta hurbilak bilatzen ditu, etxeko inguruaren antzekoenak. Gelak eta espazio komunak erabiltzaileen premietarako bereziki diseinatuta daude eta ekipamenduak eta altzariak pertsonalizazio-maila handiarekin egokituta. Esaterako, gela guztiek lorategi edo terraza/begiratokira dute irteera eta lorategi terapeutikoak ere badituzte, subjektu bakoitzaren eta talde bakoitzaren premien arabera, euren ezaugarrietara egokitutako baruko eta erreduzko ingurune fisiko eta arkitektonikoak bilatzeko helburuarekin.

Plaza kopurua

58 plaza

Arreta

Diziplina anitzeko taldeak egindako diagnostikoa oinarritzen da arreta-eredua. Diagnostikoa, pertsonaz gain, taldeak eta komunitatea ere baloratzen dira eta arlo guztietarako erantzunak eta programa zehatzak eskaintzeko aukera ematen digu: osasun fisiko nahiz psikikorako, gizarte-harremanetarako, hezkuntza eta kulturarako, integrazioarako, parte-hartze soziokomunitarioarako, giroetarako eta baita antolamendua arloko ere.

Honako hauek dira arretaren eta zainketaren helburu nagusiak:

1. Erabiltzaileen eta euren senitartekoen premien arabera, bizikidetzeta eta arretarako alternatibak eskaintzea.
2. Diziplina anitzeko taldeak egindako balorazio integralaren bitartez, zentroan arreta eskaintzen zaien pertsonen ahalmenak eta premia fisiko,

psikiko, sozial eta funtzionalak ezagutzea.

3. Esku-hartzeko plangintza orokorrean eta plan pertsonalizatuetan oinarrituta, egoiliarrek eta erabiltzaileek eguneroko bizitzan moldatzeko behar dituzten zainketak eta arreta pertsonalizatua eskaintzea, gogobetetasun- eta ongizate-maila egokia eta, ondorioz, bizi-kalitate egokia lortzeko.
4. Ahalmenei, gaitasun funtzionalei eta sozialei eta harreman sozialei eta familiakoei eustea, eta zentroa, pertsona nahiz taldea sustatzeko eta garatzeko espazioa izatea lortzea.
5. Egoiliarrek eta erabiltzaileek komunitate hurbilenarekin duten harremanari eustea Zentroak, eta harreman hori sustatzea, indarrean dagoen araudian finkatutako normalizazio- eta integrazio-printzipioak bultzatzeko.
6. Nariadura fisiko, psikikoa eta/edo funtzionala edo elkarreagin sozialaren murrizketa aurreikustea, tratamendu egokien, estimulatzeko programen, ekintza sozialen eta abarren bitartez.
7. Diziplina anitzetan antolatutako profesional lehiakorez osatutako taldearen bitartez arreta profesionala eskaintzea: harreman familiarren eta sozialaren osagarria, kalitate handikoa, hurbila, pertsonalizatua eta gizatiarra, baina boluntarioak ere tartean sartuz eta erabiltzaileekin eta egoiliarrekin esku-hartzeko unean familia ardatz gisa hartuz.
8. Arreta eskaintzen zaien pertsonen eskubide indibidualak eta kolektiboak errespetatzea eta ahalik eta gehien sustatzea.
9. Ezgaitasunaren eta zahartzaroaren iritzi positiboa sustatzea, baita pertsona ezinduen eta adinekoen zainketaren eta zentro sozioasistentzialena ere.

Matia Fundazioan honako printzipio hauetan oinarritzen dugu arreta:

I INTIMITATEA. Bakarrik egoteko, inork ez eragozteko eta inork euren arazoetan muturra ez sartzeko pertsonen eskubidea.

I DUINTASUNA. Pertsonaren berezko balio aitortzea, zirkunstantziak kontuan izan gabe, bere indibidualtasuna eta premiak errespetatuz eta errespetuzko tratamendua emanez.

I AUTONOMIA. Bere kabuz jarduteko edo pentsatzeko aukera, nolabaiteko arrisku kontrolatuak hartzeko aukera emanez.

I AUKERA. Aukeren artean askatasunez erabakitzeko posibilitatea.

I ESKUBIDEAK. Herritar izaerari dagozkion eskubide guztiak izatea.

I GOGOBETETASUNA. Helburu pertsonalak lortzea eta pertsona bakoitzaren ahalmenak garatzea, eguneroko bizitzako alderdi guztietan.

I PERTSONALIZAZIOA. Sistema guztiak plan indibidualizatueta eta egoiliar bakoitzaren

premia eta desiretara egokitzea.

Zentroaren Zerbitzuak eta Programak

I Eguneroko bizimoduan laguntzeko programa.

I Osasun-zerbitzuak:

- Balorazio integrala (Diagnostikoa, Arreta Espezializatuko Plana).
- Prebentziozko osasun-arreta.
- Osasun-arreta orokorra: tratamenduak / medikazioa / jarraipena.
- Osasun-arreta espezifikoa eta urgentziazkoa.
- Errehabilitazio txikia: Fisioterapia.
- Lan-Terapia
- Nutrizio-berrikuspina, dieta.
- Erabiltzaile eta senitartekoentzako aholkularitza medikoa.
- Zentro sanitarioetako lekualdaketa: programatutakoak eta urgentziazkoak.
- Podologia.

I Erizaintza-arreta:

- Prebentziozko erizaintza-arreta.
- Erizaintzako arreta: tratamenduak, sendaketak, laginak lortzea, gaixotasun kroniko eta akutuen jarraipena.
- Arreta farmazeutikoko zerbitzua (kudeaketa integrala).
- Erabiltzaile eta senitartekoentzako erizaintza-aholkularitza.
- Ospitaleratutako egoiliarren jarraipena.

I Farmazia-zerbitzua.

I Esku-hartze psikologiko eta sozialeko plana.

- Psikoestimulaziorako programa.
- Funtzio kognitiboak trebatzeko programa.
- Familiarentzako arreta: familiarentzako laguntza, prestakuntza.
- Egoiliarrek eta senitartekoei Arreta Indibidualeko Planean, zainketa-planetan eta zentroaren kudeaketan parte hartzea.
- Gizarte-laguntzako programak.

Profesionalen taldea

I Zentroko arduraduna eta koordinatzailea.

I Medikua.

I Psikologoa.

I Gizarte-langilea.

I Erizaintza.

I Asistentzia-laguntzailea.

I Lan-terapeuta.

I Fisioterapeutak

I Eragile soziokulturala eta programetako monitorea.

I Zerbitzuen arduraduna.

